

EUSKADIKO ORKESTRA BASQUE NATIONAL ORCHESTRA

EUSKADIKO ORKESTRA, SA

(Gardentasunari buruzko Legearen 6. artikulua)

Euskadiko Orkestra, SA Eusko Jaurlaritzak sortu zuen otsailaren 15eko [62/1982 Dekretuaren bidez](#) (Dekretua 1982ko martxoaren 26ko 41 zenbakiko EHAAan argitaratu zen), eta eskritura publikora eraman zen Sozietatearen eratzea 1982ko apirilaren 20an.

APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Honako hau da aplikatzeko araudia:

- Sektore Publikoa osatzen duten sozietateei aplikatzeko araudia.
- Kapital-sozietateei buruzko Legearen **merkataritza-araudia** (zehazki, sozietate anonimoei buruzko legeria).
- 62/1982 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Euskadiko Orkestra, SA sortzeari eta horren estatutuak onartzeari buruzkoa.
- Aurrekontu Erregimenari buruzko Araudia; batik bat, EAEko Aurrekontu Orokorrak onartzeko urteko Legea.
- **Lanaren arloko araudia:**
 - 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 24koa, langileen estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
 - Enpresaren hitzarmen kolektiboa.
 - Langileen estatutua.
 - 1435/1985 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, ikuskizun publikoetan artisten lan-harreman berezia arautzen duena.
- **Berariazko araudia:**
 - 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, jendaurreko ikuskizunei eta jolas-jarduerei buruzkoa.